

EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SA

2006ko MEMORIA, IRABAZI ETA GALEREN KONTUA eta BALANTZEA

Guztia 2006ko abenduaren 31ko datan

1. SOZIETATEAREN IZAERA

1.1. Enpresaren eraketa eta kapitala

Euskarazko Komunikazio Taldea, SA (EKTSA aurrerantzean) 2003ko maiatzaren 29an eratu zen 60.350 euroko kapitalarekin. Ondoren, hiru kapital handitze egin dira eta sozietatearen kapitala 4.740.050 euroko da 2006ko abenduaren 31ean.

Aipatutako data bitartean martxan jarritako kapital handitze guztiak itxita daude eta bildutako kapital osoa ageri da bertan.

1.2. Jarduera

Sozietatearen helburu soziala honakoa da (EKTSAren estatutu sozialetako 4. artikulua):

- *Beregain nabiz besteren kontura ale inprimatuak, liburuak, diskoak, errebistak eta egunkariak editatzea eta argitaratzea, baita haiek inprimatzea, banatzea, saltzea eta publikizitatean ustiatzea ere.*
- *Interneteko jarduerak egitea, atariak sortu, garatu eta ustiatzea barne, baita informazio, trebakuntza eta posta elektronikoko zerbitzuak ematea ere.*
- *Informazioa sortu eta ematea, bitarteko telematiko, informatiko edo zernahi euskarri multimediararen bitartez.*
- *Telekomunikazio zerbitzuak ustiatzea, tartean telefonia, irratia, telebista, datu transmisioa eta zernahi bitarteko elektronikoko direla, denak ere beren mota guztietan.*
- *Entzunezko edo ikus-entzunezko zernahi motatako lanak eskuratu, eman eta merkaturatzea ere.*
- *Publizitate espazioak ustiatzea, beregain nabiz besteren kontura.*
- *Beste kultur zerbitzuak, aisialdikoak, entretenigarriak eta atsegingarriak ematea eta merkaturatzea.*
- *Komunikabideek, berek nabiz bestereneke, zein audientzia duten ikertu eta aztertzea.*
- *Abolku zerbitzuak eman eta merkaturatzea, informazio, publikizitate, kultura, aisialdi, entretenimendu eta zernahi ekitaldi motaren antolaketari loturiko arloetan.*

Jarduera guztiok egiteko, sozietateak bete egingo ditu Legeak eskaturiko eginbeharrak, hala nola administrazio baimen eta kontzesioak eskuratzea, beharrezkoa denean.

Sozietateak zuzenean nahi zeharka egin ditzake aipaturiko jarduerak, osoki nabiz zatika, beste sozietate batzuetan ere parte hartuz.

1.3. Eraketa

Helburu soziala betetzeko, sozietateak beste 6 sozietate mugatu (SL) eratu zituen, eta guztiarekin EKT taldea eratu:

Euskal Editorea, SL –

Azalpena: Euskarazko hedabide nazionalak sortu eta gizarteratzea.

EKTSaren parte hartzea: %99,92.

Kapitala: Hasierako kapitala, 120.000 €; kapital gehitzea 2004ko urtarrilean egin zen eta 2.000.000 €ko kapitala du.

Bertako Hedabideak, SL –

Azalpena: Herrietako komunikabideekin batera, eskualdeko komunikabideak sortu eta garatzea helburu duena. Herrietako komunikabideekin elkarlanean lan egiteko eratutako enpresa.

EKTSaren parte hartzea: %99,97.

Kapitala: 30.000 €.

Iragarri, SL –

Azalpena: Publizitatea komertzializatzea helburu duen enpresa.

EKTSaren parte hartzea: %99,97.

Kapitala: 30.000 €.

Etxeraino, SL –

Azalpena: Banaketa enpresa.

EKTSaren parte hartzea: %98,34.

Kapitala: 6.000 €.

Ehuntsen, SL –

Azalpena: Interneteko proiektuak garatzea helburu duen enpresa.

EKTSaren parte hartzea: %96,78.

Kapitala: 3.100 €.

Jarduna Administrazio Zerbitzuak, SL –

Azalpena: Administrazio Kudeaketarako enpresa

EKTSAren parte hartzea: %99,97.

Kapitala: 30.000 €.

1.4. Administrazioa

EKTSA administratzeko, sozietatearen estatutu sozialei jarraiki, Administrazio Kontseilua eratu zen. Honako hauek osatzen dute Administrazio Kontseilua 2006ko abenduaren 31n:

Lehendakaria: Joxean Lizarribar
Idazkaria: Joanmari Larrarte
Bokalak: Ane Agirregomezkorta
Rebeka Arraras
Elene Barandiaran
Gotzon Hermosilla
Xabier Kintana
Maixan Merkapide
Mertxe Petralanda
Joxemari Sors
Pello Zabala

Kontseilari ordezkari lanetan Joanmari Larrarte ari da 2005etik aurrera.

2. 2006ko JARDUERA

EKT-SA enpresa beraren jarduera nagusia taldea bera eratu eta honen administrazioa egitea da: taldearen eraketa, jarraipena eta kontrola. Horretarako, taldea zuzendu eta jarraipen finantzieroa egiteko, beste bi langile ari dira kontseilari ordezkariarekin batera. Alegia, EKT-SA enpresak, jarduera mugatua du eta soilik 3 langileko taldea.

2006an EKTSAk bi sozietate berritan parte hartzeko erabakia hartu du. Hauek dira EKTSAk parte har duen bi sozietateak:

- Hamaika Telebista Hedatzeko Taldea, SA. Izenak dioen bezala, euskarazko telebista sustatzeko sortu da enpresa eta bazkideak, EKTSAz gain, honako hauek dira: Baint Television SA, Compañía Multimedia del Norte SL (Deia-Noticias taldea), Elkarlanean SL (Elkar taldea), Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkartea SA (Gara taldea), Euskaltel SA.

EKTSAk sozietate berrian %20ko parte hartzea du.

- Bidasoa Inprimatzeko Zentroa, SA. Inpresio zentroa bat eratzeko osatutako sozietatea da hau eta bertako bazkideak dira, EKTSAz gain, Bulkograf SA, Euskal Komunikabideen Hedapenerako Elkartea SA, Printek SAL.

EKTSaren parte hartzea %40ko izan da sorreran. Hala ere, 2006an, EKTSAk, bere partearen %10 Leitzaran Grafikak SL sozietateari saltzea erabaki eta adostuta dago.

3. 2006ko EKTSAren IRABAZI GALEREN KONTUA

USTIAPEN KONTUA - 2006

SARRERAK	EUROAK
SALMENTAK	445.247
PUBLIZITATEA	0
BESTELAKO SARRERAK	5.265
SARRERA FINAN.	79.588
EZ OHIKO SARRERAK	25.159

GUZTIRA SARRERAK	555.260
-------------------------	----------------

IRTEERAK

EROSKETAK	259
INPRESIO GASTUAK	0
BANAKETA GASTUAK	0
PRODUKZIO GASTUAK	0
PERTSONAL GASTUAK	163.913
TRIBUTUAK	1.528
KANPO ZERBITZUAK	304.825
PROMOZIO GASTUAK	12.942
BESTE HAINBAT GASTU	35
AMORTIZAZIOAK	12.414
DOTAZIOAK	116.429
G. FINANTZIEROAK	31
APARTEKO GASTUAK	8
GUZTIRA IRTEERAK	612.383

EMAITZA	-57.123
----------------	----------------

Azalpenak:

- Salmenten atalean EKTk taldeko beste enpresei fakturatutako zerbitzuak jasotzen dira.
- Sarrera finantzietan sozietatearen dirua kudeatzen eratorritako sarrerak ageri dira.
- Gastu nagusienak pertsonala eta kanpo zerbitzuetatik eratorritakoak dira, hain zuzen ere bere jardura egiteko beharrezko direnak.
- Dotazioen atalean EKTk HITZAK argitaratzen dituzten enpresei eginiko maileguz zuzkidurak eta taldeko enpresen galerak ageri dira.

Ondorioa:

2006an enpresak 57.123 euroko diru galera izan du batez ere HITZEN argitaratzaileek EKTk eginiko maileguak itzultzeko dituzten finantza arazoaren ondorioz dotazioetara eramane den diruagatik.

4. EKTSaren BALANTZEA 2006ko abenduaren 31n

EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO TALDEA, S.A. - BALANTZEA			
2006_12_31			
AKTIBOA		PASIBOA	
Ibilgetua	3.344.467,63	Norberaren fondoak	4.664.540,68
2 Ibigetze materiala eta inmat.	28.127,53	10 Kapitala	4.740.050,00
24 Finantza inbertsioak (partizipazioak)	2.002.340,10	11 Erreserbak	-18.386,13
25 Finantza inbertsioak	1.314.000,00	12 Aplikatzeko dauden emaitzak	-57.123,19
26 Fidantza eta gordailuak	0,00		
Zordunak	49.336,56	Hartzekodunak	34.263,04
43 Bezeroak	43.410,63	40 Hornitzaileak	6.517,44
470 Ogasuna ktzp-ezbdn-tik zordun	0,00	46 Pertsonala	7.831,76
471 Giz. Segurantza zordun	0,00	41 Hainbat hartzekodun	2.232,27
472 Ogasun publikoa, jasandako BEZa	2.732,41	475 Ogasuna ktzp-fisk-tik hartzekodun	14.353,81
473 Ogasuna Atxikip-tik zordun	3.193,52	476 Giz. Segurantza hartzekodun	3.327,76
49 Trafiko erag-tik hornikuntzak	0,00		
		Hartzekodunak – epe luzea	450.000,00
		259 Akzioen desenboltsoak egiteko	450.000,00
Finantza kontuak	1.754.999,53	Finantza kontuak	0,00
54 Finantza inbertsioak E.M.	1.795.361,97	52 Zorrak E.M.	0,00
57 Diruzaintza	224.637,56	558 Galdatutako des-tik akziodun	0,00
59 E/M krd-en kdm.gbz-tarako horn	-265.000,00		
GUZTIRA	5.148.803,72	GUZTIRA	5.148.803,72

EKTren egoera finantzieroa sendoa da: 4.740.050 eurotako kapitala du. Egoera aurreko urtekoa baino okerxeagoa da urteko emaitza negatiboagatik, baina hala ere ona da.

Diru hori honako hiru ataletan ageri da:

- 2.013.769 euro taldeko enpresen kapitalean. Kapital handiena Euskal Editoreak du eta hori horrela egin zen honen funtzionamendua ziurtatzeko.
- 1.314.000 inbertsioetan: alde batetik, sortu berri diren enpresetako parte hartzea (600.000 euro Hamaika eta Bidasoako akzioetan), eta bestetik, HITZA argitaratzen duten enpresei utzitako maileguetan, urteko funtzionamendu egokia ziurtatzeko .
- 1.795.361 banku eta bestelako finantza inbertsioetan.

5. EKT TALDEAREN GALERA IRABAZI KONTUAK

USTIAPEN KONTU KONTOLIDATUA - 2006

SARRERAK	EUROAK
EGUNKARI SALMENTAK	3.571.088
ZERBITZUAK	1.287.268
PUBLIZITATEA	4.603.070
BESTELAKO SARRERAK	1.867.044
SARRERA FINAN.	116.840
EZ OHIKO SARRERAK	30.060
GUZTIRA SARRERAK	11.475.370
IRTEERAK	
EROSKETAK	1.024.668
INPRESIO GASTUAK	1.343.305
BANAKETA GASTUAK	611.572
PRODUKZIO GASTUAK	917.119
PERTSONAL GASTUAK	6.158.465
INPOSTUAK	5.227
KANPO ZERBITZUAK	701.800
PROMOZIO GASTUAK	465.566
BESTE HAINBAT GASTU	29.221
AMORTIZAZIOAK	100.126
DOTAZIOAK	97.107
G. FINANTZIEROAK	296
APARTEKO GASTUAK	12.008
GUZTIRA IRTEERAK	11.466.479
KANPO BAZKIDEEN GALDU IRABAZIAK	62
EMAITZA	8.829

Azalpenak:

- Diru-sarreretan, aurreikusitakoaren azpitik ibili dira egunkari salmentak (zerbait igotzea aurreikusita zegoen eta ez da gertatu) eta goitik publizitatea (urtea baxu hasi arren, azken hilabeteetan gehiago fakturatzeko lortu da).
- Gastuak aurreikusitakoaren bidetik joan dira. Kontuan hartu behar da urte hasieran hainbat neurri hartu zirela gastuari eusteko.

Ondorioa:

- Urtea 100.000 euroko defiziteko aurrekontuarekin hasi bazen ere, horri buelta eman eta galerarik ez izatea lortu da. Emaidza positiboa.

**TALDEKO ENPRESEN USTIAPEN
KONTUAK - 2006**

	E.K.T	E EDITOREA	IRAGARRI	ETXERAINO	BERTAKO H	JARDUNA	EHUNTZEN
Salmentak	0	3.570.820	0	0	268	0	0
Zerbitzuak	445.247	28.424	394.126	1.769.688	251.247	260.734	196.736
Publizitatea	0	2.528.246	4.603.070	0	0	0	0
Beste diru sarrerak	5.265	1.860.469	512	345	295	145	12
Sarrera finantzarioak	79.588	22.072	7.230	1.868	1.538	3.769	774
Ez ohiko sarrerak	25.159	0	892	749	3.529	0	0
GUZTIRA SARRERAK	555.260	8.010.031	5.005.829	1.772.650	256.608	264.648	197.522
Erosketak	259	14.552	3.493.429	3.420	33.014	71	42.264
Inpresio gastuak	0	1.343.305	0	0	0	0	0
Banaketa gastuak	0	1.184.372	0	181.802	0	0	0
Ekizpen gastuak	0	1.019.104	33.979	0	0	0	908
Pertsonal gastuak	163.913	2.815.417	1.151.957	1.562.754	158.642	186.432	119.349
Tributuak	1.528	2.549	697	205	60	187	0
Kanpo zerbitzuak	304.825	1.228.055	169.429	61.893	25.708	21.460	13.621
Promozio gastuak	12.942	355.228	107.232	0	166	170	0
Beste hainbat gastu	35	19.564	8.789	833	0	0	0
Amortizazioak	12.414	40.893	16.203	14.103	1.913	12.156	2.443
Dotazioak	116.429	-1.949	-6.195	252	0	0	0
Gastu finantzarioak	31	95	50	0	7	12	100
Aparteko gastuak	8	0	12.000	0	0	0	0
GUZTIRA IRTEERAK	612.383	8.021.186	4.687.569	1.825.262	219.511	220.489	178.685
EMAITZA	-57.123	-11.155	18.260	-52.612	37.097	44.159	18.836

Azalpenak:

- Euskal Editorea. 2005ean izandako galeraren bidea eteteko hainbat neurri hartu dira, aurreikusi bezala BERRIA egokitu egin da eta gastuak murrizteko hartutako neurriak (orrialde kopurua eta kolaborazioak gutxitu eta lan taldea egokitu) betetzen joan dira eta publizitate sarrerak aurreikusi baino handiagoak izan dira.
- Aipatzekoa da Etxerainok izandako galera. Argitalpenen banaketan aldaketak egin dira urtean zehar eta banaketa enpresak denbora luzeagoa behar izan duenez egokitzeko, diru galera eragin du horrek.
- Urtero nabarmentzen dugun bezala, taldeko gastuen %50etik gora pertsonala da. EKT talde osoko langile kopurua 300 ingurukoa da.

6. EKT TALDEAREN BALANTZE KONTSSOLIDATUA 2006ko abenduaren 31n

EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO TALDEA - BALANTZE KONTSSOLIDATUA

2006_12_31

AKTIBOA		PASIBOA	
Ibilgetua	1.620.654,14	Norberaren fondoak	5.252.900,41
2Ibilgetze materiala eta inmat.	203.841,84	10Kapitala EKTSA	4.470.050,00
24Finantza inbertsioak (partizipazioak)	1.206,00	10Kapitala enpresak	4.615,41
25Finantza inbertsioak	1.326.000,00	11Erreserbak	499.405,55
26Fidantza eta gordailuak	89.606,30	12Aplikatzeko dauden emaitzak	8.829,45
Zordunak	2.308.105,77	Hartzekodunak	1.644.782,71
43Bezeroak	1.876.103,59	40Hornitzaileak	632.754,71
44Ogasuna ktzp-ezbdn-tik zordun	0,00	46Pertsonala	338.297,74
470Giz. Segurantzaz zordun	438.394,50	41Hainbat hartzekodun	307.947,17
472Ogasuna, jasandako BEZA	3.283,97	475Ogasuna ktzp-fisk-tik hartzekodun	241.871,56
473Ogasuna Atxikip-tik zordun	6.539,53	476Giz. Segurantzaz hartzekodun	123.911,56
49Trafiko erag-tik hornikuntzak	-16.215,82		
Finantza kontuak	3.431.322,46	Hartzekodunak epe luzera	
54Finantza inbertsioak E.M.	3.175.837,90	259Akzioen desenboltoak egiteko	450.000,00
57Diruzaintza	520.484,56		
59Finantza hornidurak	-265.000,00	Finantza kontuak	20.752,35
Aldizkapenegatiko doikuntzak	8.353,13	52Zorrak E. M.	0,00
48Aldizkapenegatiko doikuntzak	8.353,13	555Aplikatzeko dauden kontu sailak	20.510,40
		558Galdatutako des-tik akziodun	241,95
GUZTIRA	7.368.435,50	GUZTIRA	7.368.435,50

Balantze honen arabera, honako puntuak dira azpimarratzekoak:

- Norbere fondoak 5.252.900 eurokoak dira, hauetatik 4.470.050 € kapitala dira eta 499.405 €, berriz, 2003an sortu zenetik 2006ra sortutako erreserbak. Alegia, kapital osoari eutsi egiten zaio eta fondoak handitu egin dira urteotako emaitzari esker.
- Taldearen egoera finantzieroa, beraz, sendoa izaten jarraitzen du. EKT taldearen kapitala osatzen duten 4.470.050 euroen zati handiena bankuko kontu eta finantza inbertsioetan dago.
- Bezeroetan agertzen diren 1.876.103 euroen arrazoia BERRIAN eta bere beste produktuetan (urtekaria) urte amaieran pilatzen den publizitate ugarian dago. Gainera, 2006an, Eskura gida komertziala ere urteko azken hilabeteetan fakturatu denez, kobratzeke dagoena kopurua nabarmen handitu da garai bereko aurreko urteko balantzearekin alderatuta. Publizitate hori urte amaieran saltzen da, baina hurrengo urteko lehen hilabeteetan jasotzen da salmenta horri dagokion dirua.
- Aipatzekoa da, halaber, finantza inbertsioak (1.326.000 €) nabarmen handitu direla, lehenago esan bezala, enpresa berrietako akzioak hartzean egindako inbertsioagatik.